

U HOLDEAK ETA EUSKARARI DIRUA KENDU

Pello ZUBIRIA

Euskaltzaleok mila bereizketa eta haserreren gainetik zerbaitek elkartzen bagaitu, hori beti galtzaile izatearen sentimentua da. Hamar leku badira aukeratzeko gu beti itsusienan eseritzen ohituak gaude. Zer-bait sakrifikatu behar bada, gure lepoan pentsatzen du mundu guztiak. Erdaldunek dudarik gabe. Eta euskaldunok ere behar baino sarriagotan.

Egunkari baten projektua aurkezterakoan projektu ederrak izan ohi dira euskararentzat beti. Edonoren tarjetan «euskaltzale» seilua jartzeak balio sozial bat baduela dirudi oraindik. Alukeria batekin: hain daukagu gure babotasuna ausnartua non «euskaltzale» seilua betetzen den kontrolatzen ez dugun. Jakina, egunkaria (edo edozer, beti gauza bera gertatzen da eta) krisian dagoela eta xoxak nondik aurreratu hasten delarik, atzetik lehenik hartzen duena euskara da.

Betikoa, adiskidea. Eta normala da, ala? Ehunetik 25 gara euskaldunak, eta guztiok dakigu erdaraz ere, askotan euskaraz baino hobeto. Nola demonio hasiko zara erdaratik moztan? Lehenengo minimoa ziurtatu, erdaraz. Minimoa ez, jode, normaltasuna. Eta gero ahal duguna emango diogu euskarari. Subnormalak konformatzeko asmoz batzutan. Euskaltzaletasunez bestetan. Baina beti ere ondorio probrez.

Izan ere, uholdeak direla eta Euskadi Irratiak Bilbon duen etxea hondatu bada, nola ukatuko da euskarazko katean (Bilbokoa erdaraz da nagusiki eta Donostiatik euskara hutsez ari dena osorik geratu zen) erdaraz sartzea? Nola ukatuko duzu hola-ko larrialdian gehiena erdaraz egitea? Eta euskaltzalerik gogorrenari ere kezka agertuko zitzaizkiola

apostua egin daiteke. Baina egun bat da, bi nahi baduzu eta egoera hala-koa da eta... Bai, amore eman zenezake, nahiz eta jakin erdaldunetarik hamarretik zortzik ez duela inoiz izango horri egunen batean ordaina emateko sentsibilitaterik. Betiko irabazleak direlako.

Baina urak joan ahala kalteak eta pikardiak konpontzeko eromena hasi denean... mundu guztia hasi da euskararekin gogoratzen. Mundu guztia ez, baina bai diruaren, Herri osoak ordaintzen duen diruaren administratzaile direnak. Ez da txorakeria edo tabernako berriketa (batzuen diru promesak izan ohi direnaren alderantziz). Sintomak azaldu dira.

Eusko Jaurlaritzako kultur sailari X milioi (zertarako esan zenbakia gero «hi, 100 milioitan trönpatu hitzen» egunen batean irrifarrez entzuteko?) kenduko dizkiotela hasierako presupostutik. HABEko arduradunek subentzioak estutzeari buruz

zerbait jakinen dute. Diputazio batek jadanik «jelatu» dio UZEIri datorren urterako edozein projektu berri. Eta beste hainbat.

Ez, bada. Ezin dugu amore eman oraingoan eta ez dugu eman behar. Mila bider egin, berregin, aztertu, errebisatu, publikoki adierazi, dosierretan bildu eta edonoren bistan dauden analisek bueltarik ez dute. Ezin dugu gure kulturaren atzerakada geratzerik lortu. Euskal kultura «punto de no retorno» horren er-tzean dago. Eta hala ere minimo-pean gabiltza. Zer gertatzen da euskalduntze prozesorekin, areago HABE bera ere konjelatuta dagoen? Zer gertatzen da euskal prentsa-ekin? Kultura osoarekin?

Ez. Ezin dugu amore eman. Presupostu osoan euskarak mugitzen duena lotsagarrikeria bat da, hemen eta Txinan. Eta dirua atera behar bada badaukate nondik heldua. Gardiazibilaren milaka milioiak ez ditu inork ikutzen eta gure txanponei begira berehala hasi dira. Gure erakundeek ematen zaizkien subentzioak, milioiak, banaka kontatzen dira; beste zenbaitenak hamarka eta ehunka. Badakite beraz nondik hasi... eta nondik segi.

Aurten ere gure kopuruak mane-jatu behar ditugu agintariekin negoziatzerakoan. Errealak direlako eta beharrezkoak. Hori batetik. Eta maila horietan mane-jatzen diren zenbakien artean inongo zamarik ez direlako.

Agintariak dena kosto politikotan neurtzen du. Euskal kultur erakundeen inguruan eskema errealista baina irmo eta sendo batzuk defendatzen elkartzen garen neurrian egingen digute kasu.

Ez gaitzela lo behintzat harrapatu.